



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2021

Joan zen azaroaren 6an Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen eta haren bi fundazioen (Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa eta EHUren Uda Ikastaroak) ekonomia eta finantza jardueraren 2021eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Urteko kontuei dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** eman du, baina uste du kuantifikatu ezin diren partida eta programa batzuk, dirulaguntza bihur daitezkeen epe laburreko zor gisa kontabilizatuak, ondare garbian sartu beharko liratekeela, eta, honenbestez, 2021eko abenduaren 31ko gastu orokorretarako geldikinean.

Egoera finantzarioari dagokionez, emaitza korrontea 13,2 milioi euro positiboa da. Gastu orokorretarako diruzaintza geldikinak 26,5 milioi euro egin du gora 2020ko ekitaldiaren aldean. Gainera, 2021ean EHUK zorpetu gabe jarraitzen du.

Txostenak ondorioztatu du Unibertsitateak **zuzentasunez bete duela** 2021ean ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen **lege araudia**; alabaina, **unean uneko zenbait ez-betetze** azaleratu dira bai **Langileen** alorrean bai **Administrazioko kontratazioan** ere; langileei dagokienez, irakasleei arautegian aurreikusi gabeko kontzeptuengatik ordainsariak ordaindu zaizkie eta aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikerlariantzat Unibertsitateen Lege Organikoak ezarritako irakasleen plantillaren % 40ko muga gainditu da; administrazioko kontratazioan, berriz, lehiaketa bat ez da EBAOn argitaratu eta kontratu bidezko estaldurarik gabe, 1,1 milioi euroren gastuak aitortu dira horniduretan eta zerbitzuetan, eta kontratu bat handitu da dagokion espediente-aldaketa gauzatu gabe.